

KALITATEZ ETA...



©Sasola, S.L. 2006

SEGURTASUNEZ LAN EGITEA

LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA ETA DROGAK

Antolatzaileak:



BERGARAKO UDALA



Instituto E. de Formación Profesional Superior
MIGUEL ALTUNA INSTITUTUA

Laguntzailea:



ESTRATEGIA EN EL MARCO
DEBIDO A LA
DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y
ASISTENCIA SOCIAL
DIRECCIÓN DE DEPENDENCIAS
OSAKUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD

DROGEN ERAGINAK LANGILEENGAN

DROGA bezala ulertuko dugu gizabanakoaren organismoan sartzen denean bere kontzientzia egoeran, funtzio mentalean eta jokaeran aldaketak eragin eta menpekotasuna sortzeko gai den substantzia bat.

Drogak honela sailkatu daitezke:

LASAIGARRIAK: anestesikoak eta lasaigarriak dira edo min fisiko edo psikologikoa kentzen dituztenak. Hauen artean aurki ditzakegu: alkohola, heroina, kannabisa, extasis likidoa edo GHB-a, lasaigarriak eta lo egiteko pilulak, ketamina...

PIZGARRIAK: eragin estimulatzailea dute, bizitasuna haundituz eta gosea, logurea edo nekea gutxituz edo kenduz. Tabakoa, speed-a, extasia, anfetaminak, kokaina, ... dira.

ALUZINAGARRIAK: burmuinean sentazio eta pertzepzio arraroak sortzen dituzte, errealak diruditen amets eta aluzinazioak. Hauen artean, LSD-a, extasia, ketamina, ondoak, arnasgarriak... aurkitzen ditugu.

Substantzia hauek, **lan esparruan kontsumituta**, langileengan eragina izango dute, eta beraien lan arriskuak haunditu ditzakete, ondorengo eran:

SUBSTANTZIA	DOSI TXIKITAN	DOSI HAUNDIAGOTAN	DOSI ALTUTAN
ALKOHOLA	<ul style="list-style-type: none"> Euforia eta ongizate sentazioa. Erlajazioa. Koordinazio txarra. Tentsioaren jaitsiera. 	<ul style="list-style-type: none"> Erreflexuen makaltzea. Euforia sentazioa. Duzuna baino ahalmen gehiago daukazula pentsatzea. Kolore gorria ez ikustea. Tunel ikuspegia. 	<p>Mozkorrik gabe.</p> <ul style="list-style-type: none"> Efektu lasaigarri garrantzitsua. Erreflexuen galera. Kontzientzia gutxitzea, lo hartzeko arriskuaz.
KANNABISA	<ul style="list-style-type: none"> Eszitazioa eta euforia, erlajazioa eta ondoren ongizatea. Pertzepzioa aldatzen du. Pentsamentu logikoa aldatzen du. Epe laburreko oroimena aldatzen du. 	<ul style="list-style-type: none"> Erlajazio garrantzitsua erreflexuen galeraz. Pertzepzioaren aldaketa garrantzitsua, kolore, soinu eta tokien (hurrun/hurbil, altu/baxu) pertzepzioari dagokionean. Aluzinazioak, nahasketak, egonezina edo antsietatea ager daitezke. 	
KOKAINA, SPEED, ANFETA-MINAK	<ul style="list-style-type: none"> Euforia eta desinhibizioa. Energiaren haunditzea. Nekearen gutxitzea. Erlajazio muskularra. Segurtasun sentazio faltsua. 	<ul style="list-style-type: none"> Eragin hauek, denbora laburrean, bihur daitezke logure, neke, tristura, haserrekortasun eta agresibitate, larritasun, berriz kontsumitzeko behar... 	



ISTRIPUAK IZATEKO ARRISKUA GEHITZEA, ARE GEHIAGO SUBSTANTZIAK NAHASTEN BADIRA.

ZERGATIK ARDURATU DROGEN KONTSUMOAZ ENPRESATAN?

Drogen kontsumoa lan esparruan gero eta haundiagoa delako, bai kantitatean eta bai kalitatean ere, ez bakarrik alkohol kontsumoa haundituz, baita kannabisa, kokaina eta beste estimulatzaile batzuenak ere, kontsumo-aniztasuna emanez.

“Euskadi eta Drogak 2004” ikerketan honako datuak ikusten ditugu:

Alkohola gure gizartean gehien erabiltzen den substantzia da. Euskal biztanleen %88,8k noizbait probatu du alkohola. Gehiegi edaten dutenen kopurua edo arriskuan daudenena %13,2tik (1992) %18,4ra (2004) pasatu da.

Kannabisa, tabakoaren ondoren, Euskadin kontsumitzen den hirugarren substantzia da. 20tik 34 urte bitarteko biztanleen %50ak probatu du. 15-25 adin tarteko lau pertsonetatik batek azkenengo urtean kontsumitu du.

Hamarretik pertsona batek speed-a, anfetaminak edo kokaina probatu du. Datu hauek bikoiztu egiten dira (bostetik bat) 20-35 urte bitartekoetan.

Datu hauek, droga kontsumo gehienak pertsonak ekoizpen-gaitasun handiena duten adin tartean ematen dela erakusten dute.

ZER ONDORIO DITUZTE KONTSUMO HAUEK LANGILEENGAN?

- Lan istripuak gehitzea.
- Egin beharreko lanak era egokian garatzeko zailtasunak.
- Jokaera arrakastuak edo desegokiak, substantzia desberdinek ematen duten segurtasun sentazio faltsuagatik.
- Lankide edota ugazabekiko elkar harremanetarako arazoak.
- Osasun edota gaixotasun arazoak.
- Ohiko trebetasunen aldaketa, sustantziak sortzen dituen arazo mental edo psikomotorren ondorioz.
- Jokaera antisoziala (lapurretak, erasoak, mehatuak lankideei,...).

ZER NABARITUKO DUTE LANGILEEK LAN PREBENTZIO PROGRAMAREKIN?

Langileak bizitza pertsonal, familiar edo lan inguruan alkoholak, kannabisak edo beste droga batzuk dituzten ondorio negatiboetaz ohartuko dira.

Langileentzat prestatutako prebentzio programa edo tailerretan parte hartuko dute.

Beraienezako aisialdi eta prebentzio jarduerak garatzen parte hartuko lukete.

Modu egonkorrean, lanerako osasuntsuak, prebentiboak eta drogen eraginetatik libre dauden inguruak sortuko lituzkete.

Pertsona kontsumitzaileen erreabilitazioa eta lan munduko bergizarteratzea programaren barnean sartuko lukete.

PROGRAMAREN GARAPENAK ZER ONURA EKARRIKO DIZKIE LANGILEEI?

Enpresa edota erakundeetan funtsezkoa da, droga kontsumoaren prebentzio programaren bat martxan jartzea; izan ere, horri esker, besteak beste:

- Lan istripuak gutxituko dira.
- Harremanak garatuko ditu eta zailtasunak gainditzen lagunduko du.
- Lan giroa eta lankideen arteko harremanak hobetuko dira.
- Enpresako kideen bizi-kalitatea hobetuko du.
- Bizimodu osasuntsuen garapena erraztuko du eta norbere burua zaintzeko jarduerak indartuko dira.
- Langile guztien laneko zein bizitza kalitatea hobetuko ditu, gaitasuna, heziketa, birkreazioa eta aisialdiaren erabilera ahalbideratuz.
- Lanera ez-agertzeak murriztu egingo dira.

